

Bio-osasun Industrien mugaz haraindiko 3. topaketa Akitania Berria / Euskadi / Nafarroa

Osasun-arloko berrikuntza eta enpresa-proiektuak: arrakastaren gakoak.

Health-LSR proiektua Bio-osasun Industrien mugaz haraindiko 3. topaketan aurkeztuko da. Aurten, topaketaren izenburua honako hau izango da: "Osasun-arloko berrikuntza eta enpresa-proiektuak: arrakastaren gakoak". Bidarten izango da, ekainaren 29an. Topaketa Basque Health Cluster-ek (Osasuneko euskal enpresen Klusterra), Sodenak (Nafarroako Garapeneko Sozietatea), Gipsok (Groupement des industries Pharmaceutiques et de Santé du Sud-Ouest)) eta Cluster TIC Santé-k antolatuko dute, eta Euskadiko, Akitania Berriko eta Nafarroako osasun-sektoreko berrikuntzako enpresari, ikertzaile, unibertsitario eta agente guztiei zuzenduko zaie.

Jardunaldian, enpresa eta ikerketa-talde publikoen hogeita hamar bat «flash» aurkezpen egongo dira, bai eta mugaz haraindiko lankidetzen arrakasta-kasuen aurkezpenak ere. Topaketaren helburua mugaz haraindiko proiektuak sustatzea da eta, horretarako, hiru lurraldeetako osasun-sektoreko erakunde publiko eta pribatuetako industrialen eta ikertzaileen artean lankidetzan jardutea. 150 profesional baino gehiago bertaratzea aurreikusten da; horiek B2B elkarrizketak izateko aukera edukiko dute. 2016an, hogeita hamar bat elkarrizketa egin ziren, eta, horien bidez, lankidetzak emankorrak hasi dira.

Agenda:

<http://www.gipso.org/evenement/rencontres-aquitaine-euskadi/Programme.php>

09:15 Batzarkideen harrera.

09:30 Sarrera, erakunde antolatzaileen eta eskualdeetako presidenteen eskutik: Uxue BARKOS andrea; Iñigo URKULLU jauna eta Alain ROUSSET jauna.

10:15 Industria-gaitasunak: bbio-osasuneko 18 enpresaren aurkezpena.

11:45 Arrakasta-kasuak: mugaz haraindiko lankidetzan eginiko pare bat proiekturen aurkezpena.

12:15 Koktela eta bisitak standetara.

14:30 Arrakasta-kasuak: mugaz haraindiko lankidetzan eginiko pare bat proiekturen aurkezpena.

16:00 Industria-gaitasunak: bio-osasuneko 16 enpresaren aurkezpena.

17:00 Jardunaldiaren itxiera.